



Gordexolako Udala  
Ayuntamiento de Gordexola

## **AZAROAREN 10EKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, "MEMORIA EGUNA"**

Oraintsuko Memoria deritzon aldian, hau da, azken 60 urteetan Euskadik izan duen rolari buruzko azterketa kritikoa egitea da 2018ko Memoriaren Egunean bereziki jorratu nahi den gaia. Gure herriak terrorismoaren biktimen gainean eta biolentziaren biktimen gainean izan zituen begirada eta jarrera izan behar dira azterketa honen funtsezko erreferentziak. Hala bada, argi-ilunez hitz egin ahal eta behar dugu.

### **Ilunak**

Alderdi ilunen artean, biktimek jasandako abandonua nabarmendu behar da, batez ere hirurogeita hamarreko eta laurogeiko hamarkadetan.

Hamarkada horietan, eta, batez ere 80ko hamarkadaren hasieran, ETAk bere etaparik odoltsuena bizi izan zuen. 1987aren amaierarako, 586 biktima mortal eragin zituen. Euskal gizarteak eta erakunde eta instituzioek eman zuten erantzuna, hala ere, ez zen indarkeria horrek eragin zuen eta biktimek merezi zuten adinakoa izan.

Trantsizio-garaian, euskal gizarteak errepresio frankistaren astinduak jasan zituen, bai eta erakunde parapolizialen edo eskuin-muturreko erakundeen atentatuak ere, inpunitatea gailentzen zen testuinguru batean. Tortura salaketak ohikoak izan dira. 80ko hamarkadan, halaber, GALek (1983 eta 1987 artean aritu zenak) 29 biktima mortal eragin zituen. Biktima horiek diskriminatu egin ziren, eta ofizialki ukatu zen beren existentzia, eta are errealtatea ere.

## **DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DEL 10 DE NOVIEMBRE "DÍA DE LA MEMORIA".**

El Día de la Memoria 2018 está temáticamente dedicado al análisis crítico sobre el papel jugado por la sociedad vasca en el transcurso de lo que se conoce como Memoria Reciente, los últimos 60 años. Este análisis ha de tener una de sus referencias fundamentales en la mirada y actitud que nuestra sociedad tuvo en relación con las víctimas del terrorismo y la violencia. En este sentido, podemos y debemos hablar de sombras y de luces.

### **Sombras**

Entre las sombras, debe destacarse el abandono sufrido por las víctimas, especialmente, en las décadas de los setenta y los ochenta.

En estas décadas, especialmente a principios de los 80, ETA protagoniza su etapa más cruenta. Sólo hasta final de 1987, había provocado 586 víctimas mortales. La respuesta de la sociedad vasca y de sus entidades e instituciones no estuvo a la altura de lo que aquella violencia supuso y de lo que aquellas víctimas merecieron.

En la Transición, la sociedad vasca padeció los coletazos de la represión franquista así como atentados de organizaciones parapoliciales o de extrema derecha en un contexto de impunidad. Las denuncias de tortura han sido una realidad persistente. Todavía en los 80, el GAL, que actuó de 1983 hasta 1987, provocó 29 asesinatos. Estas víctimas sufrieron discriminación y negación oficial de su existencia y realidad.



Gordexolako Udala  
Ayuntamiento de Gordexola

Garai hartan, euskal gizartea harrapatuta, bortxatuta, astinduta, isilik eta isilduta... bizi izan zen, erreferentziarik eta erantzuteko lider argirik aurkitu gabe. Nolanahi ere, biktimek ez zituzten jaso behar zituzten arreta, babesa eta elkartasuna.

Ez herritarren eskutik, ez eta erakunde, alderdi politiko, komunikabide edo agente sozialen eskutik ere. Ilun hori garrantzitsua da, eta modu kritiko eta autokritikoan jorratu behar da.

Berariaz aitortzen dugu 90eko hamarkadaren hasierara arte Euskadin berandu iritsi ginela biktimen kausara, merezi zuten sentikortasun eta erantzunera, eta berariaz aitortzen dugu biktima guztiek ez zutela gizartean eta erakundeetan aintzatespen berdina izan, biktima zein zen edo biktima non kokatzen zen. Kritikoki aitortu behar dugu, halaber, hurrengo urteetan, bateraezintasun politikoak zirela-eta, sarritan ez ginela gai izan elkar hartuta denok biktimekin solidario izateko eta denok batera indarkeria errefusatzeko.

Hori guztia dela eta, autokritika egiten dugu. Barkamena eskatzen diegu indarkeriaren eta terrorismo ororen biktima izan diren guzti-guztiei egindakoengatik eta egin gabe utzitakoengatik; batez ere, 70eko eta 80ko hamarkadan ez genielako konturik egin, batere. Bereziki azpimarratu behar dugu errekonozimendu hau ETAk eragindako biktimen aurrean, erakunde horrek gizartearen babesa izan zuelako. Biktima guztien aurrean aitortzen dugu lehenago erreakzionatu behar genuela, bai eta hobeto eta elkartuago ere.

En este tiempo, la sociedad vasca vivió atrapada, coaccionada, conmocionada, silenciosa y silenciada..., sin encontrar referencias, ni liderazgos claros de respuesta. Lo cierto, en cualquier caso es que las víctimas no recibieron la atención, el apoyo ni la solidaridad que debían.

No la recibieron por parte de la ciudadanía; pero tampoco por parte de las instituciones, los partidos políticos, los medios de comunicación o los agentes sociales. Esta es una gran sombra que debe ser asumida de modo crítico y autocrítico.

Reconocemos explícitamente que, hasta primeros de los 90, en nuestra sociedad llegamos tarde a la causa de las víctimas, a la sensibilidad y respuesta que merecían, y reconocemos que no todas las víctimas recibieron una misma consideración social o institucional, dependiendo de quién fuese el victimario o dónde fuese situada la víctima. También debemos reconocer críticamente que, en los años siguientes, a menudo, las divisiones políticas desdibujaron la unidad en la solidaridad y en el rechazo a la violencia.

Hacemos autocrítica por todo ello. Pedimos perdón a las víctimas de la violencia y de todos los terrorismos, sin exclusión, especialmente a las producidas en las décadas de los 70 y 80 por la desatención que padecieron. Queremos subrayar singularmente este reconocimiento ante las víctimas provocadas por ETA, porque esta organización contó con apoyo social. Frente a todas las víctimas reconocemos que debimos reaccionar antes y hacerlo mejor y más unidos.



Gordexolako Udala  
Ayuntamiento de Gordexola

### **Argiak**

80ko hamarkadaren amaieraz geroztik, gizartearen erantzuna apurka-apurka hazi egin zen Euskadin. Gizarte-mugimenduak ugaritu egin ziren; mobilizazio ugari egon ziren, bai masiboak, bai testigantzazkoak; ekimen sozial, mediatiko, politiko eta instituzionalak ere, adibidez Ajuria Eneako ituna, asko izan ziren euskal gizarteko eremu guztietan.

90eko hamarkadan apurka-apurka areagotu egin zen biktimen gaineko sentsibilizazioa eta, 2000. urtetik aurrera, biktimen giza eskubideen babes aktiboa araudi-mailan, erakundeetan nahiz gizartean estaltzeko egindako urratsak nagusitu ziren.

Horiexek dira gure gizartean azpimarratu nahi eta behar ditugun argiak. 1990etik aurrera, terrorismoaren eta indarkeriaren aurka, biktimen eta giza eskubide, elkarrizketa eta bizikidetzaren defentsaren alde geroz eta gehiago inplikatzeko eta antolatzen zen gizartea genuen.

Argien artean, noski, gorabeherak daude, ilunetan ere gertatzen den bezala. Baina errealitate hori da gure iraganaren balio esanguratsu bihurtuta oroitu eta sustatu behar dena, orainera eta etorkizunera begira.

Une honetan, beharrezkoa da hainbat pertsonak, gizarte-erakundek, bake mugimenduk, biktimen elkartek zein fundaziok eta alderdi politiko eta instituzionalek egindako ahalegina gogoratzea; batez ere azken 30 urteetako. Luzaroan aritu behar izan ziren guztiz aurka zeuzkaten baldintzetan, eta, are,

### **Luces**

Desde finales de los 80, la respuesta social crece de modo progresivo en Euskadi. Lo pondrán de manifiesto, la proliferación de movimientos sociales; infinidad de movilizaciones tanto masivas como testimoniales, y múltiples iniciativas sociales, mediáticas, políticas e institucionales como, el Pacto de Ajuria Enea, y en todos los ámbitos de la sociedad vasca.

La década de los 90 estuvo presidida por una progresiva sensibilización en relación con las víctimas, y a partir del 2.000 ha estado caracterizada por la construcción de una cobertura normativa, institucional y social de protección activa de los derechos de las víctimas

Estas son las luces que queremos y podemos destacar en nuestra sociedad. A partir de 1990, tuvimos una sociedad progresivamente implicada y organizada en contra del terrorismo y la violencia, a favor de las víctimas, en defensa de los derechos humanos, del diálogo y de la convivencia.

Entre las luces también hay claroscuros, como los hay entre las sombras. Pero esta es la realidad que merece ser recordada y promovida como un valor relevante de nuestro pasado en su proyección al presente y al futuro.

Es necesario, en este momento, recordar el esfuerzo de tantas personas, entidades sociales, movimientos por la paz, asociaciones y fundaciones de víctimas, partidos políticos e instituciones, especialmente en los últimos 30 años. Durante mucho tiempo debieron hacerlo en las más adversas condiciones y, en



Gordexolako Udala  
Ayuntamiento de Gordexola

batzuetan, beldurraren edo mehatxuaren aurka borrokatuz eta itxaropen ororen aurka itxaropenari eutsiz ere. Gaur, aintzatespen berezia merezi dute.

### **Ondorio bat**

Gure oraintsuko iraganera begiratzen badugu, gure gizartearen historiako alderdirik txarrena biktimek jasan zuten abandonua eta terrorismoaren eta indarkeriaren aurkako erreakzio urria dira, batez ere 70eko eta 80ko hamarkadetan. Gure oraintsuko iraganera begiratzen badugu, gure gizartearen historiako alderdirik onena inplikazio eta erreakzio sozial eta politikoa da, biktimen alde eta indarkeriaren aurka gorpuztu baitzen, batez ere 90eko hamarkadatik aurrera.

Esperientzia honetatik memoriaren gainean ondorioztatu dezakegun pedagogia honako hau da, beraz: terrorismoaren eta indarkeriaren aurrean, biktimekiko elkartasuna eta pertsona guztien giza duintasunaren, bizitzeko eskubidearen eta giza eskubideen balio gorenarekiko konpromiso argi, inplikatu eta partekatua gailendu behar dira beste edozein jardunbideren aurrean, etorkizunera begira erantzun arrakastatsurik lortu nahi bada.

ocasionen incluso, luchando contra el miedo o la amenaza, y sosteniendo la esperanza contra toda esperanza. Hoy merecen un reconocimiento especial.

### **Una conclusión**

Si miramos a nuestro pasado reciente, lo peor de nuestra historia como sociedad tiene que ver con el abandono que sufrieron las víctimas y con una insuficiente reacción frente al terrorismo y la violencia, especialmente en las décadas de los 70 y los 80. Si miramos a nuestro pasado reciente, lo mejor de nuestra historia como sociedad tiene que ver con la implicación y reacción social y política que, a favor de las víctimas y frente a la violencia tomó cuerpo, especialmente a partir de los 90.

La pedagogía de la memoria que podemos extraer de esta experiencia es que frente al terrorismo y la violencia la respuesta que hace futuro es anteponer a cualquier otra consideración la solidaridad con las víctimas y el compromiso claro, implicado y compartido con el valor superior de la dignidad humana, el derecho a la vida y los derechos humanos de todas las personas.